

## **GIBaren eta hiesaren intzidentzia murriztea eta emakumeak ahalduntzea erabakiak hartzeko garaian, horiexek dira Gurutze Gorriaren helburuak Hiesaren Mundu Egunean**

- **Gurutze Gorriak eta Gazteen Gurutze Gorriak kanpaina berri bat jarri dute abian: ‘Ez da zugatik, nigatik baizik. Aitzakiarik ez. Erabili babesa zure harremanetan’**
- **Abenduaren 1a: Hiesari erantzuteko Mundu Eguna**

**2021eko abenduaren 29a.** Urtero, abenduaren 1ean GIBari eta hiesari erantzuteko Mundu Eguna ospatzen da, eta Gurutze Gorriak gaixotasun horren biktima guztiak gogoratu eta oroitu nahi ditu bizi garen pandemia-testuinguruan, **gogora ekarriz badirela berrogei urte beste pandemia horrekin bizi garela, eta haren biktimak gaixotu eta zendu egin direla, sarritan, gizartearen estigma eta diskriminazioa ere pairatuta.**

Osasun Ministerioak finantzaturik, Gurutze Gorriak eta Gazteen Gurutze Gorriak kanpaina bat jarri dute abian sexu-transmisio bidezko infekzioak prebenitzeko: **‘Ez da zugatik, nigatik baizik. Aitzakiarik ez. Erabili babesa zure harremanetan’**, Erakundearen sentsibilizazio-ekintza berri bat gogora ekartzeko hiesak 36,3 milioi pertsona baino gehiago erail dituela dagoeneko, eta 79,3 milioi pertsona GIBak kutsatuta daudela. *“Pandemia horren intzidentzia murrizteaz gain, **emakumeak ahalduntzea ere lortu nahi dugu, sexu-harremanetan erabakiak hartzeko garaian**”*, nabarmendu du Carmen Martín, Gurutze Gorriko Osasuneko zuzendariak.

Horregatik, Gurutze Gorriak bat egin nahi du, beste behin, NBEk ezarritako 95-95-95 erronkarekin, hau da, 2030erako, GIBarekin bizi diren pertsonen GIBarekiko duten egoera serologikoaren berri izatea; GIBarekin diagnostikatu dutenen % 95ek terapia antirretobiral jarraitua jasotzea; eta terapia antirretobirala jasotzen dutenen % 95ek birusa ezabatua izatea, hau da, karga birikoaren maila atzemanekin bat. *“Bat egiten dugu 95-95-95 helburu horrekin, GIBak eragindako infekzio berrien % 75 murrizteko eta diskriminazioa desagerrarazteko helburuekin batera”*, adierazi du Martínek.

GIBaren/hiesaren eta sexu-transmisio bidezko beste infekzio batzuen aurrean prebentzioa eta sensibilizazioa sustatzeko helburuarekin, **Gurutze Gorriak eta Gazteen Gurutze Gorriak 300.000 material prebentibo baino gehiago** banatu dituzte herritarren artean, gazteen artean bereziki "barne- eta kanpo-preserbatiboak, latex-barrerak eta lubrifikatzaileak barne". Material horiek banatzeko asmoarekin, boluntario gazteek sensibilizazio- eta prebentzio-ekintzak antolatzen dituzte aisiaguneetan, kaleko emanaldietan eta ikastetxeetako tailerretan, gazteak sexu-harremanetan prebentzio-materiala erabiltzearen garrantziaz kontzientziatzeko beharrezkoa den informazioaren zabalkundearen eta esku-hartzearen erradioa zabaltzearen.

"Tailerretan **konfiantzazko giro** bat sortzen da **hezkuntza berdinen artean** bideratzen delako, gelako tutorerik gabe, eta klasean edo familian galdetzen ez dutena kontatzen digute guri, Interneten bilatzea baino askoz ere erantzun hobea eta fidagarriagoa" nabarmendu du Paula Rivarés Gazteen Gurutze Gorriko zuzendariak. Tailer horietan, GIBa edo sexu-osasuna lantzeaz gainera, sexu-harremanak, sexualitatea, sexu-orientazioak eta metodo prebentibo eta antikonzeptiboak ere lantzen dira, baita bikoteko trebetasun sozialak ere.

## **Gurtze Gorriak GIBa/hiesa duten pertsonei eskaintzen dien arreta**

80ko hamarkadaren hasieran GIBaren/hiesaren pandemia hasi zenez geroztik, Gurutze Gorriak **arreta** eskaini die gaixotasun horren eraginpean egonik kalteberatasun-egoera batean bizi diren pertsonei, alde batera utzi gabe **prebentzioa** eta infekzioaren eraginpean egon litezkeen pertsonen **detekzio goiztiarra**. Horrez gain, aldi berean, **sensibilizazioa** funtsezkoa da Gurutze Gorriarentzat "**infekzio horrekin bizi diren pertsonen estigma eta diskriminazioa desagerrarazteko**", adierazi dute Carmen Martínek eta Paula Rivarés Gazteen Gurutze Gorriko zuzendariak.

2020an, **Gurutze Gorriak, GIBa izanik kalteberatasun-egoeran zeuden 7.604 pertsona artatu zituen**, aurreko urtean baino % 27 gehiago. Pertsona horiekin tailerrak egin zituzten, eta 25.000 jarduera prebentibo eta informazio- eta sensibilizazio-ekintza, gutxi gorabehera, munduan zuzenean 50.000 pertsona baino gehiago eta online bidez munduan ia 2,5 milioi pertsona eraginpean hartuz.

## **GIB/STI/TBK Info-Prebentzioko Zerbitzua**

Abenduaren 1a dela aintzat hartuz, Gurutze Gorriak VIH/STI/TBK Info-Prebentzioko zerbitzua indarrean dagoela ekarri nahi du gogora, "**dinamismoa, elkarreragina, eta, batez ere, pertsonenganako hurbiltasun handiago bat dakarrena**"

**Doako telefono-zerbitzu bat da, konfidentziala eta anonimoa**, eta asteko 7 egunetan diharduena, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 20:00etara, eta larunbat eta igandeetan 09:00etatik 15:00etara: **900 111 000**.

Zerbitzu horretan jasotako kontsulten artean daude, besteak beste, sexu-harreman arriskugarriak eduki ondoko zalantzak argitzea, sintomatologiak, probak eta leiho-aldiak eta tratamenduak.

## **IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK**

Webgunea: <https://www2.cruzroja.es/infoprevencion>

### **Gurutze Gorriari buruz**

Munduko mugimendu humanitario, herritar eta independente handiena dugu Gurutze Gorria. 157 urte daramatza erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan gizatasuna eta duintasuna pertsona guztiengana iritsi dadin edozein lekutan, eta edozein une eta zirkunstantzian.

Espanian, 250.000tik gora boluntario eta 1.400dik gora arreta-puntu ditu lurralde osoan Gurutze Gorriak, eta horrek 4 milioi pertsona baino gehiago artatzea ahalbidetzen du herrialde osoan. Haietatik 1,7 milioi pertsona baino gehiago gizarte-programen bidez artatzen dira. Hori guztia gizartearen sektore guztietako ia 1,4 milioi bazkide, enpresa eta aliatu ingururen laguntzarekin.

Pertsona kalteberen ohiko jardueraz gain, pandemia deklaratu zenean, Gurutze Gorriak ERANTZUN Plana abiarazi zuen COVID-19a zela-eta, hau da, jardun-plan integral bat bere arlo guztietan: Sorospen, Osasun, Gizarteratze, Hezkuntza, Enplegu eta Ingurumen arloetan 4,4 milioitik gora pertsonengana iritsiz 21 milioitik gora erantzunen bidez, erakundearen historiako baliabideen, gaitasunen eta pertsonen mobilizazio handiena izaten ari den ekimenean.

192 herrialdetan presente dagoen Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduko kide da Espainiako Gurutze Gorria. Bere zazpi Funtsezko Printzipioen arabera jarduten du betiere: Gizatasuna, Inpartzialtasuna, Neutraltasuna, Independentzia, Izaera Boluntarioa, Batasuna eta Unibertsaltasuna.